# Lore artean abiatu da Astigarragako txotx denboraldia

Loreak filmeko protagonistek eman diote hasiera Astigarrragako txotx denboraldiari. Sagardo freskoa eta arina da aurtengoa, edan erraza. Egun osoko ospakizuna izan da Astigarragan, eta Bereziartua sagardotegian egin dute lehen txotxa.

Tweet

GAIKAKOA

### Itsas energia baliatzeko egina

I.Esnaola, 2016-06-05

Olatuen bidez energia ekoizten duen aurreneko planta da Mutrikukoa. OWC izeneko teknologiari esker, itsasoaren indarra energia elektriko sortzen dute. Horretarako, 16 kamera-turbina erabiltzen ditu. Energiaren Euskal Erakundearen ekimenez eraikitako plantak urtean 100 familientzako adina energia sortzen du. Xehetasun gehiago jaso ditugu erreportajean, planta bisitatzearekin batera.

GIZARTEA

### Aurrekontuetan ere erabakiz

I.Sarasua, 2016-06-02

Hernanin aurrekontu parte hartzaileak sustatu nahi dituzte, eta horretarako, 500.000 euro zertan erabili herritarrek erabakiko dute, Hernani Erabaki egitasmoaren bitartez. Hori egiten duten hirugarren urtea da, eta aurreko urteetako esperientziez eta datozen urteetara

GIZARTEA

### Lehen aldiz ospatuko da Iparraldean Euskal Eskola Publikoaren jaia

L.Ferro, 2016-05-31

"Emazu eskua" lelopean ospatuko dute Hendaian 25. Euskal Eskola Publikoaren jaia. Ipar eta Hego Euskal Herria batuta egin nahi dute honela hezkuntza publikoaren aldeko deia. Egun osorako egitarau aberatsa prestatu dute antolatzaileek eta haiekin izan gara festaren eta iparraldeko egoeraren berri izateko.

GAIKAKOA

### Kolitza mendiak aterpea eskainiko die mendizaleei

N.Uriarte, 2016-04-28

Kolitza mendia ikurra da Balmasedako herritarrentzat eta hemendik aurrera ikurra ere izango da izen bereko aterpetxea. Eraikin moderno eta sostengarria da. Inaugurazioan izan ginen.





begira dituzten asmoez hitz egin dugu eurekin.






EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA

creative commons